



13

mesanotxean

**Gaztematikako lan hitzarmen berriei
eta profil profesionalei buruzko
hausnarketak**

«Mesanotxean» izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat aldian-aldian jorratzen da.

Eginkizun horretarako, «Gazte faktoria berritze-gunea» izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu «Mesanotxean» bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.



mesanotxean

mesanotxean 13

Izenburua: Gaztematikako lan hitzarmen berriei eta profil profesionaleri buruzko hausnarketak.

Egileak: Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua.
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Monografiko hau Mesanotxean Laborategiaren gogoeta prozesuaren ondorio da, eta haurren eta gazteen foru eta udal teknikariek parte hartu dute bertan. Joxe Jimenez (Gazte Faktoria) arduratu da laborategia dinamizatzeaz eta testuak idazteaz.

Mesanotxean Laborategia: Isabel Babace, Edorta Bergua, Josean Castaño, Karmele Gómez, Urko Imaz, Arantza Martiarena, Idoia Murua, María Solana, Maite Telleria, Xabier Ximenez eta Teresa Zinkunegi.

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

Bildumaren koordinazioa: Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua.
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2012ko Udaberria.

Oinarrizko dokumentua:

**Gaztematikako lan hitzarmen berriei eta profil
profesionalei buruzko hausnarketak**

orrialde 6/27

Proposamenen dokumentua:

**Gaztematikako profil profesionalak finkatzeko
lan ildoak**

orrialde 28/35

Hitzaurrea

Gaztematikako Foro Teknikoan erabaki zen «Mesanotxean Laborategia» bultzatzea; horrenbestez eratu zen haurren eta gazteen arloko politikei buruzko «Mesanotxean» monografikoak sortzeko eta ekoizteko prozesuan parte hartzeko lantaldea. Laborategi horretan udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko haurren eta gazteen arloko teknikariek parte hartzen dute, eta Gazte Faktoria Berritzegunea da dinamizatzaileria.

Ikasturte honen hasieran egin zen laborategiaren lehen saioa, 2011-2012 ikasturteko lan-metodologia erabakitzeko. Saio horretan, laborategian parte hartutako teknikariek honako ondorio hau atera zuten: gai bat lantzea ikasturte bakoitzean, gai hori lankidetzan jorratzea, eta proposatutako lan-ildoak Gaztematikako eragile guztientzat izatea.

Udaberriaren hasieran, monografiko honen prestaketa-lanak hasi ziren, **Gaztematikako lan-hitzarmen berriei eta profil profesionalei buruzko hausnarketak** proposatzea helburu hartuta.

Horretarako, monografiko horietan erabili ohi den metodoaz baliatu gara: hasiera batean oinarritzko dokumentu bat prestatu dugu, aztergaia ardazteko; eta gero laborategiaren saio bat egin dugu, esparru teorikoa adosteko, eta dagokion lan-eremuan esku hartzeko ildo eta irizpideak proposatzeko.

Berrikuntza metodologiko gisa, adierazi nahi dugu aztergaiari buruzko edukien eraketan zuzenean parte hartu duen lantaldea osatu zela.

Oinarrizko dokumentua:

**Gaztematikako lan hitzarmen berriei eta
profil profesionalei buruzko hausnarketak**

2011ko azaroan *Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa: 2011-2014*¹ onartu ostean, sektore horretako zerbitzu eta programen kudeaketan diharduten zenbait enpresa eta erakundek zalantza batzuk planteatu dituzte, bai hitzarmen horren nahitaezkotasunari buruz, bai ezarpenaren bideragarritasunari buruz.

Nahitaezkotasunari dagokionez, argudiatzen dute hitzarmen horren aplikazio-eremua esku-hartze soziala dela, eta, horrenbestez, aisialdi hezigarriaren berariazko eremua ez duela barne hartzen. Horregatik, *Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa*,² orobat 2011n onartua, aplikatzearen alde egon daitezke enpresa eta erakunde horiek.

Egoera hori, oro har, Gaztematikako eragileen artean kezka sortzen duen gaia da. Arrazoi horregatik, hain zuzen, egoki iritzi zitzaion Mesanotxean laborategiaz baliatzeari, gai horri buruzko ekintza-ildo batzuk adostea helburu hartuta.

Dena dela, haurren eta gazteen sustapenaren sektorean lanbidea sendotzeko diseina dezakegun estrategia orok oinarri hartu behar du Mesanotxean laborategian adostutako aurretiazko jarrera hartze hau:

Gure ustez, lan-hitzarmen berriek Gaztematikako profesionalengan izango duten inpaktuari buruzko hausnarketa ezinbestekoa da, haurren eta gazteen sustapenerako dugun sistemaren ikuspegitik. Izan ere, Gaztematikaren zeregina haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako zerbitzuetan oinarritzen da, neurri handi batean; eta, aldi berean, eginkizun horretan diharduten profesionalak zerbitzu horien funtsezko euskarri dira. Horrenbestez, profesional horien lan-baldintzek faktore objektibo bat osatzen dute, eta faktore objektibo horrek mugatzen du, hain zuzen, profesionalek betetzen dituzten zereginen kalitatea; hortaz, Gaztematikaren helburuen lorpenean eragiten dute lan-baldintzek. Beraz, ezin daiteke pentsa haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako zerbitzu-sarea antola daitekeenik, Gaztematikaren proposamenen ildoan, lan-baldintza duin eta egonkorretan diharduten profesionalik gabe.

Laborategiko lantaldeak, sustapenaren eremuko profesionalen etorkizunaren giltzarrietan sakontzea helburu hartuta, honako helburu hauek zehaztu zituen prozesu horretarako:

- Gaztematikako profil profesionalei buruz orain arte adostutako elementuei begiratu.
- Gaztematikako zerbitzu, programa eta jardueretako profesionalen oinarritzko profilak definitu.
- Gure sektoreko lan-harremanen esparru bakoitzari erreparatu (Udalhitz, hitzarmen publikoa, eta sektore-hitzarmen pribatuak) eta haien oinarritzko elementuak aztertu.

1 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala: 145,1. zenbakia, 2011ko abuztuaren 1ekoa; 49-89 or.

2 Estatuko Aldizkari Ofiziala: 57. zenbakia, 2011ko martxoaren 8koa; 26474-26523 or.

- Lan-harremanen esparru horiek osatzen dituzten oinarritzko elementuei buruzko azterketa kritikoa egin.
- Gaztematikako zerbitzuetan, programetan eta jardueretan kalitatezko lan-baldintzak bermatzeko eta finkatzeko ekintza-ildoak markatu.

Oinarritzko dokumentuak 7 atal ditu:

1. Gaztematikako profil profesionalei buruz orain arte adostutako elementuak.
2. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemari dagozkion profil profesionalak.
3. Gaztematikarentzat erreferentziazkoak diren lan-harremanetako esparruen oinarritzko elementuen azterketa konparatiboa.
4. Lan-hitzarmenetan jasotako oinarritzko soldaten deskribapena.
5. Hitzarmen desberdinetako lan-baldintzen azterketa.
6. Kostu ekonomikoen taula, profil profesionalen arabera.
7. Balio anitzeko tokiko zerbitzu baten kostu ekonomikoaren simulazioa.

1. Gaztematikako profil profesionalei buruz orain arte adostutako elementuak

Eremu honetan diharduten profesionalak bide praktikoaren ildotik finkatu dira tokiko errealitatean, haurren eta gazteen sustapenerako unitate, zerbitzu edo programak abian jarrita. Gipuzkoako herri eta auzoei begiratu bat ematea nahikoa da profil profesionalen ezaugarrien aniztasun handiaz ohartzeko, eskala profesionala, prestakuntza-maila, lan-sariak eta abar kontuan hartuta.

Gipuzkoan haurren eta gazteen sustapenaren alorreko zenbait profil profesionalen ezaugarriak zehazteko bidean aurrera egitea helburu hartuta, urrats hauek eman ditugu: lehenik eta behin, M13 laborategia lantaldean³ emandako iritziak jaso ditugu; gero, Gaztematikan argitaratutako zenbait dokumentu berrirakurri ditugu; eta, amaitzeko, haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzuen eta programen kudeaketari buruzko baldintza-orri batzuk aztertu ditugu.

Profil profesionalei buruz gaur egun erabiltzen dugun informazioaren arabera, Gaztematikan oinarritzko lau profil hauek ageri dira:

³ M13 laborategia lantaldea: Edorta Bergua, Josean Castaño eta María Solana (Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzuko teknikariak. Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia).

- **Haurren eta Gazteen Sustapenerako Teknikaria.** Foru-esparruan edo udal-esparruan haurren eta gazteen sustapenerako politika diseinatu, kudeatu eta ebaluatzeko gai dena.
- **Hezitzailea.** Adin-tarte txikientzat edo hezkuntza-arloak garrantzi handiagoa duten jarduera-esparruentzat pentsatua (Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua).
- **Dinamizatzailea.** Adin-tarte handientzat nahiz hezkuntza-arloa edo -ekintza nagusi ez den jarduera-esparruentzat pentsatua batez ere (Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, Haurren eta Gazteen Ekimenei Laguntzeko Zerbitzua).
- **Informatzailea.** Funtsean, Haurrentzako eta Gazteentzako Informazio Zerbitzuan kokatua, edota haurrentzako eta gazteentzako bulegoan edo informazio-gunean, hala badagokio.

Aldez aurretik adierazi behar dugu haurren eta gazteen sustapenerako unitateko teknikarien profila ez dugula laborategi honetan aztertuko; izan ere, badago beste lantalde bat, teknikari horien profila definitzeko ardura duena.

Hortaz, zerbitzu, programa eta jarduerak erabiltzen dituzten haurrekin, nerabeekin edo gazteekin zuzenean esku hartzeko oinarritzko profilak aztertuko ditugu. Argigarri gisa, *Gaztematika* definitzeko dokumentuan⁴ haurrentzako eta nerabeentzako balio anitzeko zerbitzuei buruz adostutako testura joko dugu.

Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua:

- *Zerbitzuak euskarri izango duen antolaketa-egitura zerbitzuan lan egiten duten pertsonen funtzioak: Hezitzaile-talde bat izango da. Horietako bat koordinatzailea edo zuzendaria izango da. Adin-tarte bereizien arabera egingo da lan (gutxi gorabehera hiru urteko adin-tarteak, eta funtsezkoa izango da 9tik 12 urtera artekoa bereiztea).*
- *Giza baliabideak: Entsegu eta orientazio moduan, hamabost erabiltzailerentzako hezitzaile bat beharko dela kalkulatu da batez beste (instalazioetatik kanpo egiten diren ekintzetan hezitzaile bat hamar haurrentzako), baina kopuru hori aldatu egingo da haurren adinaren arabera. Beraz, zerbitzuan gutxienez bi profesional beharko dira. Langile kualifikatuak eta ordainduak izango dira; nolana ere boluntarioek emandako laguntza (ez ordezkapena) ez da baztertzen. Emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua izan dadin ahalegina egingo da.*

⁴ *Gaztematika. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Oinarritzko dokumentua* [linean] Haur eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politika Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2010. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.gipuzkoagazteria.net/orria.php?pg=103&hizkntz=2> [2012ko urtarrilak 30].

- **Zerbitzuak euskarri izango duen antolaketa-egitura eta zerbitzuan lan egiten duten pertsonen funtzioak:** Hezitzaile-talde bat izango da. Horietako bat koordinatzailea edo zuzendaria izango da. Hasiera batean, adin-tarte bereizien arabera egingo da lan (nerabezaroaren erdira arte eta etapa honen erditik aurrera).
- **Giza baliabideak:** entsegu eta orientazio moduan, hogeitazazazentzako hezitzaile bat beharko dela kalkulatu da batez beste (instalazioetatik kanpo egiten diren ekintzetan hezitzaile bat hamar haurrentzako). Zerbitzuan gutxienez bi profesional beharko dira. Langile kualifikatuak eta ordainduak izango dira; nolahi ere boluntarioek emandako laguntza (ez ordezkapena) ez da baztertu. Emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua izan dadin ahalegina egingo da.

Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua

- *Zerbitzuak euskarri izango duen antolaketa-egitura eta zerbitzuan lan egiten duten pertsonen funtzioak: Dinamizatzaile-talde bat izango da. Horietako bat koordinatzailea edo zuzendaria izango da. Hasiera batean, bereizitako interesen arabera taldeak banatuta egingo da lan.*
- *Giza baliabideak: Entsegu eta orientazio moduan, hogeita hamar erabiltzailerentzako dinamizatzaile bat beharko dela kalkulatu da batez beste. Langile kualifikatuak eta ordainduak izango dira; nolahi ere boluntarioek emandako laguntza (ez ordezkapena) ez da baztertzen.*

Haurrentzako eta Gazteentzako Informazio Zerbitzua

- Zerbitzuak euskarri izango duen antolaketa-egitura eta zerbitzuan lan egiten duten pertsonen funtzioak Informatzaile-talde bat izango da. Horietako batek koordina-tzaile-lana edo zuzendari-lana beteko du.
- Giza baliabideak: Informatzaileen kopurua zerbitzuak dituen jardueren eta erabil-tzaile-kopuruaren arabera izango dira. Langile kualifikatuak eta ordainduak izango dira; nolahi ere boluntarioek emandako laguntza (ez ordezkapena) ez da baztertzen. Profesionalen gaitasunen profilari dagokionez, funtsezkoak dira komu-nikatzeko gaitasuna eta baita informazioa kudeatzeko tresnak erabiltzeko gaitasuna eta gizarte-trebetasunak ere.

Profil horiei, gure eguneroko jardunetik sortu diren beste bi profil erantsi behar dizkiegu. Hain zuzen, aisialdi hezigarriaren alorreko jardueretarako (udaleku ireki eta itxiak, kanpaldiak, bidaiak, trukeak, irtenaldiak...) uda partean batik bat behar diren profesionalei dagozkienak. Ildo horretatik, profil zehatz hauek sortu dira: aisia hezitzaileko jardueren **Zuzendaria eta** aisia hezitzaileko jardueren **Begiralea**.

2.- Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemari dagozkion profil profesionalak

Profilaren deitura	Titulazioa/Prestakuntza	Kualifikazioa	Lanbide-jarduera
Teknikaria	- Unibertsitateko prestakuntza: Gizarte Hezkuntza Gradua. - Unibertsitateko prestakuntza: Pedagogia Gradua, Psikologia Gradua, Psikopedagogia Gradua...	Lanbide-kualifikazioaren maila: 4/5	Haurren eta gazteen sustapenerako unitateko teknikaria.
Hezitzailea	- Unibertsitateko prestakuntza: Gizarte Hezkuntza Gradua. - Unibertsitateko prestakuntza: Pedagogia Gradua, Psikologia Gradua, Psikopedagogia Gradua...	Lanbide-kualifikazioaren maila: 4	- Balio anitzeko tokiko zerbitzuetako hezitzailea. - Sustapenerako programetako hezitzailea.
Dinamizatzailea	- Unibertsitateko prestakuntza: Gizarte Hezkuntza Gradua. - Unibertsitateko prestakuntza: Pedagogia Gradua, Psikologia Gradua, Psikopedagogia Gradua...	Lanbide-kualifikazioaren maila: 4	- Balio anitzeko tokiko zerbitzuetako dinamizatzailea. - Sustapenerako programetako dinamizatzailea.
Informatzailea	Arautu gabeko prestakuntza: haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programetako informatzaile-ziurtagiria.	Lanbide-kualifikazioaren maila: 3	- Haurrentzako eta gazteentzako balio anitzeko zerbitzuetako informatzailea. - Gazte-informaziorako bulegoak eta gunek.
Zuzendaria	- LH arautua: Gizarte eta Kultur Animazioko Goi Teknikaria. - Arautu gabeko prestakuntza: haurren eta gazteen jardueren koordinatzaile-ziurtagiria (haurrentzako eta gazteentzako aisialdi hezigarriko eskolak).	Lanbide-kualifikazioaren maila: 3	- Haurrentzako eta gazteentzako aisialdi hezigarriko jardueren koordinatzailea. - Kanpamentuetako, gazteentzako ostatueta, udalekuetako, baserri-eskoletako eta natura-eskoletako koordinatzailea.
Begiralea	- Haurrentzako eta gazteentzako jardueren begiralea (haurrentzako eta gazteentzako aisialdi hezigarriko eskolak). - Haurrentzako eta gazteentzako aisialdi hezigarriko jarduerak dinamizatzeko kualifikazioa.	Lanbide-kualifikazioaren maila: 2	- Haurrentzako eta gazteentzako aisialdi hezigarriko jardueren begiralea. - Kanpamentuetako, gazteentzako ostatueta, udalekuetako, baserri-eskoletako eta natura-eskoletako begiralea.

* Haurren eta gazteen sustapenerako unitateko teknikariaren profilari buruzko datuak egungo errealitatea adierazten dute; behin betiko definizioa emango da horretarako sortutako lantaldeak aterako dituen ondorioak oinarri hartuta.

3. Gaztematikarentzat erreferentziazkoak diren lan-harremanetako esparruen oinarrizko elementuen azterketa konparatiboa

Haurren eta gazteen sustapenean (sustapena eta gizarte-hezkuntza) diharduten profesionalen lan-baldintzak hobetzeko aukerak, hezkuntza formalaren edo osasunaren alorreko sistemetan bezala, honako hiru maila hauen mende daude: politikoa (makro), kudeaketa teknikoa (meso) eta esku-hartze zuzena (mikro).

Oinarri hartzen dugun erantzunkidetasun-printzipioaren arabera, eragile guztiek beren gain hartu behar dute dagokien alderdia. Halere, gure ustez, funtsezkoa da identifikatzea nork hartu beharko lukeen bere gain sektoreko langileen eta patronalaren arteko lan-harremanak aldatzeko lagungarriak izango diren zenbait neurri abian jartzeko lankidetzaprozesua (eragileen artekoa) sustatzeko eginkizuna.

Edozein mailatan gauzatutako jarduerak zuzenean eragiten dute haurren eta gazteen sustapenaren alorreko zerbitzuetako, proiektuetako eta jardueretako profesionalen lan-baldintzetan. Adibidez, udal batek Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua zeharka kudeatzea proposatzen duenean, maila bakoitzak eragingo du, dagokion lekutik. Zerbitzuaren baldintza teknikoan orria idaztean, zerbitzua eratzeak giltzarrizko elementuak (zerbitzu-orduak, kudeaketarako orduak, hezitzaileen kopurua...) diseinatu beharko ditu udal-teknikariak; gero, maila politikoak parte hartuko du behin betiko baldintza teknikoak erabakitzeko eta aurrekontuz hornitzeko; eta, amaitzeko, erakunde esleipendunak zerbitzuko profesionalen lan-baldintzak eta gastuaren banaketa (langileak, enpresaren irabazia, baliabide materialak...) planteatuko ditu.

Ikusi dugunez, hezkuntzaren eremuan eta gizartean esku hartzeko alorrean, baliabide ekonomiko eta material gehientsuenak administrazio publikoak jartzen ditu. Horregatik, domino-efektua erreferentziazat hartuta, lehenengo fitxa mugitzea interesgarria iruditzen zaigu, gainerakoek, pixkanaka, dagokien lekua har dezaten.

Zerbitzu publiko horiek zuzenean kudea daitezke (administrazioetako langileen bitartez) edota zeharka (lehiaketa publikoen edo hitzarmenen bidez). Lehenengo kudeaketa-formulari dagokionez, erreferentziazkoa da UDALHITZ hitzarmena (2008-2010), Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen; bigarren formulari dagokionez, berriz, erreferentziazkoak dira eremu pribatuko bi hitzarmen hauek: ***Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-2014)*** eta ***Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa***.

Haurren eta gazteen sustapenaren alorreko zerbitzu eta jardueretan diharduten profesionalentzako baldintza egokiak bermatu nahi baldin baditugu, behar-beharrezkoa da lan-harremanetarako esparru finko eta ondo definituak egotea. Hitzarmen horietako bakoitzean jasotako baldintzetan sakontzeko, honako azterketa-metodologia hau erabiliko dugu: lehenik, dokumentu bakoitzaren jatorrizko testutik ateratako oinarrizko puntuak azaltzea; bigarrenik, haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzuetako eta jardueretako

profesionalen urteko oinarritzko soldaten konparazioa aurkeztea; eta, amaitzeko, balio anitzeko tokiko zerbitzu baten kudeaketan administrazio publikoak bere gain hartu beharko lukeen kostua simulatzea (Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua).

3.1. Eremuak: funtzio-eremua, lurralde-eremua eta langileen eremua

3.1.1. Funtzio-eremua eta jardueren katalogoa

UDALHITZ hitzarmenak (2008-2010), Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituenak, kontuan hartzen ditu Administrazioak zuzenean sustatzen dituen zerbitzu edo jarduera publikoak. Zerbitzu horiek kanpoko erakundeek ematen dituzten kasuetarako, gure jarduera-sektoreari dagozkion bi lan-hitzarmen hauek aztertuko ditugu: *Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa* eta *Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa*.

Akordio edo hitzarmen bakoitzean jasotako oinarritzko elementuak aurkitzeko modurik hoberena da jatorrizko testuetan letra lodiz ageri diren zatiak irakurtzea. Puntu azpimaragarrienak bildu ditugu jarraian, gure ikuspegitik.

3.1.2. Lurralde-eremua

a) Udalhitz hitzarmen arautzailea (2008-2010)

Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena da.

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa

Hitzarmen kolektibo hau jardute-eremu **erakunde** guztiei aplikatuko zaie, baita **Gipuzkoako Lurralde Historikoan lan egiten duen langile orori** ere, erakundeak bere helbide soziala edozein tokitan duela ere.

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Hitzarmen hau **Espainiako Estatuko lurralde guztian** aplikatu behar da, lehen xedapen gehigarrian autonomia-erkidego batzuei buruz (Katalunia, Euskadi eta Aragoi) adierazitakoaren kalterik gabe. Hitzarmenaren arau-izaera eta eraginkortasun orokorra aintzat hartuta, Langileen Estatutuaren III. tituluari jarraiki, hitzarmen horren funtzio-eremuaren, langileen eremuaren eta lurralde-eremuaren barne dauden enpresa eta langile guztiek bete beharko dute, indarrean dagoen bitartean, eta beste sektore-hitzarmenik ez da aplikatu behar. Salbuespen dira 4. artikuluan berariaz alde batera utzitakoak.

3.1.3. Langileen eremua

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010): **Erakunde honetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzea da Hitzarmen honen helburua, bertan dauden harremanak ahalik eta gehien erraztuz.**

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa: *Hitzarmen honen eremuaren barnean hartzen dira jardute-eremuan **zehaztutako erakundeetan** lan-kontratazio erregimenean **lan egiten duten langile guztiak**.*

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa *Hitzarmen hau aplikatu behar zaie dagokion jardute-eremuaren eta lurralde-eremuaren **barne dauden enpresetan lan egiten duten langile guztiei**.*

3.2. Lanaldia eta oporrak

Gehienezko lanaldia:

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010): *Ohiko lanaldiari ordu-malgutasuna ezarriko zaio, eta, horrenbestez, lantokian bertan egoteko urteko lanaldia **gehienez ere 1.592 ordukoa izango da**.*

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa: **1.649 ordu** 2012an.

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa: *2012rako lanaldia **1.742 ordukoa izango da**, gehienez, eta **astean 38 ordu eta 30 minutu** egingo dituzte lanean, gehienez.*

Oporrak:

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010): *Jarduneko zerbitzu osoko administrazio-egoeran dagoen funtzionarioak lan urte oso bategatik **hogeita lau laneguneko** oporraldi ordaindua edukitzeko aukera izango du: 24 lanegunak astelehenetik ostiralera doazenak dira. Lan egindako denbora urte osoa baino gutxiago izanez gero, portzenta-jean dagozkion ordaindutako opor egunak hartzeko eskubidea izango du.*

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa: *2011 eta 2012 urteei dagokionez, langileek gutxienez 35 lanegun izango dituzte oporretarako, 2013 urteari dagokionez, 38 lanegun izango dituzte, eta 2014 urteari dagokionez, 40 lanegun izango dituzte, eta egun horietako 3 norberaren eginkizunetarako egun gisa hartu ahal izango dira.*

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa: *Hitzarmen honen mendeko langile guztiek egutegiko **30 eguneko oporraldi ordaindua** izango dute, zerbitzu aktiboan egindako urte oso bakoitzeko.*

3.3. Lanbide-sailkapena: jardute-eremuak eta lanbide-taldeak

Udalhitz 2008-2010	I. Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa	Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa
A taldea edo A1 azpitaldea (publikoa) - Doktorea, lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa edo baliokidea. 21-30 mailak.	1. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila handienak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako goi-mailako unibertsitate-prestakuntza (lizentziatura) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua dutenak. - Lanpostuak, orientazio gisa: psikologoa, pedagogo, psikopedagogo...	I. taldea: zuzendaritzako langileak. - Lanpostuak: zuzendari nagusia.
B taldea edo A2 azpitaldea (publikoa) - Ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomadua, arkitekto teknikoa, 3. mailako Lanbide heziketa edo baliokidea. 17-26 mailak.	2. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako erdi-mailako unibertsitate-prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua dutenak. - Lanpostuak, orientazio gisa: gizarte-hezitzailea...	II. taldea: kudeaketako langileak. - Lanpostuak: departamentu-burua; programen, proiektuen eta ekipamenduen zuzendaria; proiektu pedagogikoen eta aisialdi-proiektuen koordinatzailea; gizarte- eta kultura-kudeaketako teknikaria.
C taldea edo C1 azpitaldea (publikoa) - Batxilerra, 2. mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea. 14-22 mailak.	3. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila ertainak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, goi-mailako prestakuntza dute, unibertsitatekoa izatea ezinbestekoa ez bada ere (Goi-mailako Heziketa Zikloak, Batxilergoa eta abar) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua. - Lanpostuak, orientazio gisa: gizarte- eta kultura-arloko zerbitzueta eta komunitaterako zerbitzueta goi-mailako teknikaria: animatzaile soziokulturala.	III. taldea: hezkuntza-arretako eta gizarte- eta kultura-alorreko langileak. - Lanpostuak: zentroko jarduera eta proiektuen koordinatzailea, aisialdi hezigarriko begiralea, animatzaile soziokulturala, tallerretan aditua, areto-kontrolatzailea, informazio-teknikaria eta gradu-tituluduna.
D taldea edo C2 azpitaldea (publikoa) - Eskola-graduadua, 1. mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea. 11-19 mailak.	4. lanbide-taldea: konplexutasun-, erantzukizun- eta autonomia-maila arruntak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; erdi-mailako edo oinarritzko prestakuntza izan ohi dute, unibertsitatekoa ez dena (Erdi-mailako Heziketa Zikloak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua. - Lanpostuak, orientazio gisa: begiralea, gizarte- eta kultura-arloko zerbitzueta eta komunitaterako zerbitzueta teknikaria...	IV. taldea: administrazioko langileak. - Lanpostuak: Administrazio-kudeaketako teknikaria, merkataritza-agentea, txartel-saltzailea, administrazioko laguntzailea, harreragile/telefonista.
E taldea: - Eskola-ziurtagiria. 8-16 mailak.	5. lanbide-taldea: konplexutasun-, erantzukizun- eta autonomia-maila baxuak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; oinarritzko prestakuntza izan ohi dute, edota prestakuntzarik ez, edo bestela, eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua baino ez.	V. taldea: zerbitzu orokorretako langileak. - Lanpostuak: sukaldaria, sukaldeko laguntzailea, mantentze-lanetako teknikaria, gidaria, garbitzailea, atezain/jagolea...

3.4. Lansari-egitura: oinarritzko soldata, ordainsariak, eta aldi baterako ezintasuneko aldian kobratzea

Lanbide-saillkapena	Udalhitz 2008-2010	Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa	Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa
Oinarritzko soldata	Soldataren kontzeptua, arautzea eta egitura Euskal Funtzio Publikoaren Legean eta Udalhitz hitzarmenean zehaztuta. Funtzionarioak taldetan bananduko dira, sartzeko eskatu zitzaizen ikasketen arabera: A, B, C, D eta E taldeak.	2012. urteko oinarritzko soldatak 2011ko soldatak gehi Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2011. urteko KPIa izango dira.	2011. urteko ordainsariak dira hitzarmenaren 3. eranskinean ageri direnak. 2012. urterako ordainsariak kalkulatzeko, 2011. urteko soldata-taulei %2,75 gehituko zaie.
Soldatak berrikustea		2013ko oinarritzko soldatak kalkulatzeko, 2011ko soldatei Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2012ko KPIa eta %2,5eko diferentzuala gehituko zaie. 2014. urteko soldatak kalkulatzeko, 2013ko soldatei Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2013ko KPIa eta %3,5eko diferentzuala gehituko zaie.	Batzorde Paritarioak hitzarmen honetan adostutako soldata-taulak 2013ko urtarrilean berrikusi behar ditu , 2012ko KPIaren benetako igoeraren berri izan ostean, eta berrikusitako taulak hurrengo hitzarmenerako abiapuntutzat hartuko dira.
Aparteko ordainsariak	Tarte orokorrari eta arduraldi bereziko tarteari dagozkion urte guztiko Osagarri Berezien kopurua hainbanatzeko aukera izango du Udal Gobernuak, sindikatuen ordezkaritzarekin akordio hori lortzen badu. Hilabeteko izaera izango duten 14 ordainsaritan banatu ahal izango du, eta ekainean eta abenduan bikoitza izango da.	... hilabetetik gorako aldizkako mugaegunagatiko osagarri gisa, aparteko bi haborokinen zenbatekoa jasoko dute. Haborokin horietako bakoitza oinarritzko soldataren hileko baten, antzinatasunaren eta erantzukizun-osagarriaren parekoa izango da. Uztailean eta abenduan ordainduko dira.	... hilabetetik gorako aldizkako mugaegunagatiko osagarri gisa, aparteko bi haborokinen zenbatekoa jaso behar dute. Haborokin horietako bakoitza oinarritzko soldataren hileko baten parekoa eta urteko berariazko osagarrien zati proportzionala izango da. Uztailaren 1a eta abenduaren 23a baino lehen ordaindu behar dira.
Aldi baterako ezintasuneko aldian kobratzea		Lanbide-gertakariak eragindako aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langileek beren oinarri arautzailearen %100 osatzeko behar duten osagarria jasoko dute lehen egunetik hasita, baja-egoeran emandako aldian izandako soldata-igoerak barne. 2011. eta 2012. urteetarako ohiko gertakariak eragindako aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langileek lehen sei hilabeteetan beren oinarri arautzailearen %100 osatzeko behar duten osagarria jasoko dute lehen egunetik hasita, baja-egoeran emandako aldian izandako soldata-igoerak barne.	Aldi baterako ezintasuna lanbide-gaixotasun baten edo laneko istripu baten ondorio baldin bada, langileak soldataren osagarri gisa jasoko du, enpresaburuaren kontura, subsidioaren zenbatekoaren eta aldi baterako ezintasunagatik baja hartu aurreko hileko ordainsariaren %100aren arteko diferentzia. Aldi baterako ezintasuna gaixotasun arrunt baten edo lane-ko ez den istripu baten ondorio izanez gero, bajaren 4. egunetik hasi eta 21. egunera bitartean baja hartu aurreko hileko oinarri arautzailearen %75 jaso ahal izango dute langileak.

3.5. Hitzarmenaren gizarte-hobekuntzak

3.5.1. Berdintasun-plana

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010)

1. Toki-erakundeek berdintasun-eskubidea txertatuko dute beren eskumenak gauzatzeko, eta horren alde egiten lagunduko diete gainerako Administrazio Publikoei.
2. Erakundeak behartuta daude lan-eremuan tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatzera, eta horretarako, emakumeen eta gizonen artean inolako lan-bazterkeriarik ekiditeko neurriak hartu beharko dituzte. Neurri horiek langileen ordezkariekin negoziatu eta, hala badagokio, hitzartu beharko dituzte.
3. Aurreko atalak aipatzen dituen berdintasun-neurrien helburua berdintasun-plan bat egin eta aplikatzea izango da. Erakunde txikietan berdintasun-planak borondatez ezartzearen alde egiteko, sustapen-neurriak eta beharrezko laguntza teknikoa erabiliko dira.

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa

Berdintasunaren arloko arauzko xedapenak eraginkortasunez betetzeko, **Berdintasun Batzorde paritario** bat sortuko da, honako helburu hauekin:

- a) Berdintasun-planen lantze-prozesurako, egiturarako eta prozedurentzako jarraibideak erabakitzea, giza baliabideen kudeaketa egokia lortzearen, diskriminazioak saihesteko eta benetako aukera-berdintasunak eskaintzeko.
- b) 2012ko urtariletik aurrera indarrean jar daitekeen berdintasun-plan bat diseinatzea.

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

250 langiletik gorako enpresek beren Berdintasun Plana egin beharko dute, langileen legezko ordezkariekin itunduta. Plan horrek langile guztiengan izango du eragina, urtebeteko iraunaldia izango du, eta helburu...

3.5.2. Euskara-plana

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010)

1. Hizkuntza Prestakuntzarako Plangintzaren barruan, Erakundeko gobernu organoak egin beharreko jarduerak zehaztuko ditu eta nortzuk parte hartuko duten esango du. Hizkuntza Prestakuntzarako Plangintza onartu gabe daukaten erakundeek berau onartzeko prozesua hasiko dute; horretarako, aldez aurretik pertsonalen ordezkariekin negoziatu beharko dute, 2006ko lehen seihilekoaren barruan.
2. Bestalde, dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea beharrezkoa izango da behin behineko izendapenatarako, Lanpostuen Zerrendak hala eskatzen duenean.

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa

24. artikulua. Prestakuntzarako eta Hizkuntza Normalizaziorako Sektore Batzordea.

Hitzarmen honen esparruan, eta argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean, Sektoreko Prestakuntza Batzordea eratuko da; Batzorde hori Hitzarmena negoziatu duten alderdien %50ek osatuko du. Era berean, Batzorde horren esparruan Hizkuntza

Normalizaziorako Plana sustatu, diseinatu eta gauzatzeko agindua ezarri da. Plan hori hitzarmen hau aplikatuko den sektoreko erakunde eta langile guztiei zuzenduta egongo da; horretarako, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa hartuko da kontuan.

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Ez du gai horri buruzko aipamenik egiten.

3.5.3. Subrogazio-eskubidea

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010)

Ez du gai horri buruzko aipamenik egiten.

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa

Lehiaketa publikoaren, hitzarmenaren eta zerbitzuaren, baliabidearen edo produkzio-unitatearen titulartasuna hitzarmen hau aplikatu ahal zaien erakundearen artean eskuz aldatzearen kasuetan, **erakunde berriak adierazitako zerbitzuan, baliabidean edo produkzio-unitatean lan egiten zuten langileei buruzko betebeharrak, erantzukizunak eta lan-baldintzak subrogatuko ditu.**

Horretarako, zerbitzuak, baliabideak edo produkzio-unitateak jarraipena duela kontuan hartuko da, baldin eta eskualdatzeak bere nortasunari eutsi dion zerbitzuari, baliabideari edo produkzio-unitateari eragin badio, eta horiek jarduera betetzeko bitarteko antolatuen multzo gisa hartzen badira. **Ez dira subrogatuko bazkideak, ezta zuzendaritza- edo kudeaketa-lanak egin dituztenak edo ordezkaritza-ahalmena izan dutenak ere.**

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Hitzarmen hau bete behar duten enpresen eta beren bezeroen artean zerbitzuak emateko sinatutako kontratuan titularra aldatuz gero aurreikusitako subrogazioa **aplikatu behar zaie langile finko guztiei. Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratu-modalitatea duten langileak kanpo** geratzen dira berariaz. **Langileen legezko ordezkari lehentasuna emango zaie** enpresa edo erakunde berean jarraitzeko.

3.5.4. Amatasuna eta aitatasuna

a) UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010)

Amatasun eta Aitatasun lizentzia erditzean. Erditze-egoeratan, langileek **126 egunekoko lizentzia (18 aste)** eskuratzeko eskubidea izango dute, eta erditze anitza izan bada, 150 egunekoa izango da.

Interesdunak nahi duen moduan banatuko ditu bere lizentzia-egunak, baina sei aste erditzea izan eta hurrengo egunetan izan beharko dira; ama hiltzen bada, aitzak amari dagokion lizentzia osoa edo amari gelditzen zaiona erabili ahal izango du.

b) Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa

a) Amatasuna. Emakumezko langileek **ordaindutako 16 aste** hartzeko eskubidea dute erditzen dutenean (18 aste erditze anitza izanez gero); emakumeak nahi bezala bana ditzake aste horiek, betiere sei aste erditzearen segidan hartzen baditu.

b) Aitatasuna. Seme edo alabaren jaiotza, adopzio edota etxean hartzearen kasuan, aitatasunagatiko baimena izateko eskubidea aitortzen da, amarenarekiko autonomia; baimen hori **segidako 13 egunekoa** izango da, eta hitzarmen kolektiboaren bitartez (37. artikulua, 1.b idatz-zatia) **dagoeneko indarrean dagoen 4 eguneko baimenari gehituko zaio.**

c) Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

a) Amatasuna. Erditze-egoeratan, **segidako hamasei asteko** lizentzia izango du; eta erditze anitza izan bada, bi aste gehiago har ditzake seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita.

b) Aitatasuna. Seme edo alabaren jaiotza, adopzio edota etxean hartzearen kasuan, Langileen Estatutuaren 45.1.d.artikuluari jarraiki, aitatasunagatiko baimena izateko eskubidea aitortzen zaio langileari; baimen hori **segidako 13 egunekoa** izango da, eta erditze anitza izan bada, bi egun gehiago har ditzake seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita.

4. Lan-hitzarmenetan jasotako oinarritzko soldaten deskribapena

A) 1. AUKERA: Administrazio publikoak zuzenean kudeatzea. UDALHITZ 2008-2010

Lehenengo aukerak zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko eredua du oinarri. Dagoikigun kasuan, aplika daitekeen zuzeneko erreferentzia jasota dago UDALHITZ hitzarmen arautzailean (2008-2010), **funtzionarioen** lan-baldintzak arautzen dituenean.

Hitzarmen horretan, kualifikazio-mailak eta ordainsariak jasotzeko baldintzak honela zehaztuta ageri dira:

UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010) ⁵				
Taldea	Postua	Urteko oinarritzko soldata	Hileko oinarritzko soldata	€/orduko
A2	Hezitzailea	37.076 €	2.648 €	23,3 €
A2	Dinamizatzailea	37.076 €	2.648 €	23,3 €
C1	Informatzailea	32.202 €	2.300 €	20,2 €
C1	Aisialdiko jardueren koordinatzailea	32.202 €	2.300 €	20,2 €
C2	Aisialdiko jardueren koordinatzaile laguntzailea	29.980 €	2.141 €	18,8 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	27.758 €	1.983 €	17,4 €

Hezitzailea edo dinamizatzailea: 17. ordainsari-maila. Informatzailea eta aisialdiko jardueren koordinatzailea: 14. ordainsari-maila. Aisialdiko jardueren koordinatzaile laguntzailea: 13. ordainsari-maila. Aisialdiko jardueren begiralea: 11. ordainsari-maila.

⁵ Tauletan jasotako oinarritzko soldatak kalkulatu dira 2010erako Udalhitzen zehaztutako oinarritzko soldatari aplikatuz estatu-mailan administrazio publikoetako langileentzat dekretu bidez agindutako %5eko deskontua.

B) 2. AUKERA: Zeharkako kudeaketa, erakunde pribatuen bidez

Bigarren aukera honetan, haurren eta gazteen sustapeneko sektoreko ordezkari diren enprekin egindako akordioak hartzen dira erreferentziatzat. Dokumentu honetan, gaur egun Gipuzkoan aplikatzen ari diren bi hitzarmen aztertuko ditugu.

B.1. Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-2014)⁶

Erreferentzia hurbilena Gipuzkoan 2011ko ekainaren 1ean adostutako hitzarmena da, HEDATZEN eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean (enpresa-sektorearen eta langileen ordezkari, hurrenez hurren).

Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-2014)				
Taldea	Postua	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	€/orduko
A2	Hezitzailea	22.985 €	1.642 €	13,9 €
A2	Dinamizatzailea	22.985€	1.642 €	13,9 €
C1	Informatzailea	21.015€	1.501 €	12,7 €
C1	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	21.015 €	1.501 €	12,7 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	19.911 €	1.422 €	12,1 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	18.808 €	1.343 €	11,4 €

B.2. Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Hitzarmen hori erreferentzia gisa jasotzen dugu; izan ere, Gaztematikako zerbitzuetan, programetan edo jardueretan diharduten langileei aplikatzearen alde daude zenbait enpresa.

Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa				
Taldea	Postua	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	€/orduko
A2	Hezitzailea	16.701 €	1.193 €	9,6 €
A2	Dinamizatzailea	16.701 €	1.193 €	9,6 €
C1	Informatzailea	14.845 €	1.060 €	8,5 €
C1	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	14.845 €	1.060 €	8,5 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	13.917 €	994 €	8,0 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	12.990 €	928 €	7,5 €

⁶ Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala: **145,1 zenbakia**, 2011ko abuztuaren 1ekoa; 49-89 or.

5. Hitzarmen desberdinetako lan-baldintzen azterketa

1. Azterketa: UDALHITZ 2008-2010 eta Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko hitzarmenaren arteko alderaketa

Oinarrizko soldatak alderatzeko, jakin beharreko lehen datua da zenbat orduz lan egin behar den hilabeteko eta urteko soldata hori jasotzeko. Udalhitz hitzarmenean 1.592 ordu dira urtean, eta Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko hitzarmenean, berriz, 1.649 ordu urtean. Horrenbestez, sektore pribatuko urteko lanaldiak 57 ordu gehiago ditu sektore publikokoak baino.

Aztertutako kategoria guztietan, esku-hartze sozialari buruzko hitzarmenean jasotako oinarrizko soldata %40 baxuagoa da hitzarmen publikoan adierazitakoa baino. Kualifikazio handieneko kategorietan (A2: hezitzailea) portzentajezko aldea 3 puntu handiagoa da batez besteko diferentzia baino; hau da, %43ko aldea dago. Kualifikazio txikieneko kategorietan (C2: begiralea) portzentajezko aldea 3 puntu txikiagoa da batez besteko diferentzia baino; hau da, %37ko aldea dago.

Dena dela, desberdintasunak argiago ikusteko, eurotan adieraziko ditugu benetako balioak.

		UDALHITZ hitzarmen arautzailea (2008-2010)		Desberdintasuna		Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-14)	
Taldea	Postua	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	% aldea	€ hileroko aldea	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata
A2	Hezitzailea	37.076 €	2.648 €	%38	1.006 €	22.985 €	1.642 €
A2	Dinamizatzailea	37.076 €	2.648 €	%38	1.006 €	22.985 €	1.642 €
C1	Informatzailea	32.202 €	2.300 €	%35	799 €	21.015 €	1.501 €
C1	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	32.202 €	2.300 €	%35	799 €	21.015 €	1.501 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	29.980 €	2.141 €	%34	719 €	19.911 €	1.422 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	27.758 €	1.983 €	%32	639 €	18.808 €	1.343 €

Gaztematikako balio anitzeko zerbitzu batean lanaldi osoan ari den hezitzaile batek 37.076 €-ko ordainsaria izango du udal-langilea bada. Baina pertsona hori erakunde pribatu bateko langilea izanez gero, 22.985 €-ko ordainsaria izango du. Hau da, urtean 14.091 €-ko aldea, eta hilean 1.006 €-ko aldea. Hurrengo kualifikazio-taldean (c1: informatzailea edo koordinatzailea) profesional publikoen aldeko diferentzia 11.188 € ingurukoa da urtean, eta 800 €-ko aldea hilean, gutxi gorabehera. Azken taldeari erreparatuta, aisialdiko jardueren begiraleei dagokienez, 8.950 €-ko aldea dute urtean, eta 639 €-koa hilean.

2. Azterketa: Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboaren eta Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboaren arteko alderaketa

Taulari begiratu azkar bat eman ostean ateratzen dugun lehen ondorioa da *Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboan* zehaztutako soldatak baxuagoak direla (%29 batez beste) *Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmenean* jasotakoak baino. Hileroko soldaten arteko aldea 435 €-koa da batez beste.

		Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-14)		Desberdintasuna		Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa	
Taldea	Postua	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	% aldea	€ hileroko aldea	Urteko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata
A2	Hezitzailea	22.985 €	1.642 €	%27	449 €	16.701 €	1.193 €
A2	Dinamizatzailea	22.985€	1.642 €	%27	449 €	16.701 €	1.193 €
C1	Informatzailea	21.015€	1.501 €	%29	441€	14.845 €	1.060 €
C1	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	21.015 €	1.501 €	%30	428 €	14.845 €	1.060 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	19.911 €	1.422 €	%31	416 €	13.917 €	994 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	18.808 €	1.343 €	%31	414 €	12.990 €	928 €

Alderaketan sakontzeko lagungarria da honako datu hau: *Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboko* kategoria handieneko profil profesionalak (hezitzailea) soldata txikiagoa du Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko hitzarmeneko kategoria txikieneko profilak baino.

6. Kostu ekonomikoen taula, profil profesionalen arabera (lanaldi osoa)

A) 1. AUKERA: Administrazio publikoak zuzenean kudeatzea. UDALHITZ 2008-2010

Taldea	Postua	€/orduko	Hileko oinarritzko soldata	Urteko oinarritzko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
A2	Hezitzailea	23,3 €	2.648 €	37.076 €	1.853,8 €	12.235,0 €	51.164,8 €	3.654,6 €
A2	Dinamizatzailea	23,3 €	2.648 €	37.076 €	1.853,8 €	12.235,0 €	51.164,8 €	3.654,6 €
C1	Informatzailea	0,2 €	2.300 €	32.202 €	1.610,1 €	10.626,8 €	44.439,2 €	3.174,2 €
C1	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	20,2 €	2.300 €	32.202 €	1.610,1 €	10.626,8 €	44.439,2 €	3.174,2 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	18,8 €	2.141 €	29.980 €	1.499,0 €	9.893,5 €	41.372,8 €	2.955,2 €
C2	Aisialdiko jardueren begiralea	17,4 €	1.983 €	27.758 €	1.387,9 €	9.160,3 €	38.306,5 €	2.736,2 €

B) 2. AUKERA: Zeharkako kudeaketa, erakunde pribatuen bidez

B.1. Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-2014)

Taldea	Postua	€/orduko	Hileko oinarritzko soldata	Urteko oinarritzko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
2	Hezitzailea	13,9 €	1.642 €	22.985 €	1.149,3 €	7.585,0 €	31.719,2 €	2.265,7 €
2	Dinamizatzailea	13,9 €	1.642 €	22.985 €	1.149,3 €	7.585,0 €	31.719,2 €	2.265,7 €
3	Informatzailea	12,7 €	1.501 €	21.015 €	1.050,7 €	6.934,9 €	29.000,3 €	2.071,5 €
3	Aisialdiko jardueren koordinatzailea	12,7 €	1.501 €	21.015 €	1.050,7 €	6.934,9 €	29.000,3 €	2.071,5 €
3	Aisialdiko jardueren koordinatzaile laguntzailea	12,1 €	1.422 €	19.911 €	995,6 €	6.570,8 €	27.477,9 €	1.962,7 €
4	Aisialdiko jardueren begiralea	11,4 €	1.343 €	18.808 €	940,4 €	6.206,7 €	25.955,5 €	1.854,0 €

B.2. Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Taldea	Postua	€/orduko	Hileko oinarritzko soldata	Urteko oinarritzko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
2	Hezitzailea	9,6 €	1.193 €	16.701 €	835 €	5.511 €	23.047 €	1.646 €
2	Dinamizatzailea	9,6 €	1.193 €	16.701 €	835 €	5.511 €	23.047 €	1.646 €
3	Informatzailea	8,5 €	1.060 €	14.845 €	742 €	4.899 €	20.487 €	1.463 €
3	Aisialdiko jardueren koordinatzailea	8,5 €	1.060 €	14.845 €	742 €	4.899 €	20.487 €	1.463 €
3	Aisialdiko jardueren koordinatzaile laguntzailea	8,0 €	994 €	13.917 €	696 €	4.593 €	19.206 €	1.372 €
4	Aisialdiko jardueren begiralea	7,5 €	928 €	12.990 €	649 €	4.287 €	17.926 €	1.280 €

7. Balio anitzeko tokiko zerbitzu baten kostu ekonomikoaren simulazioa

Simulazioa egiteko, honako ezaugarri hauek dituen zerbitzuan oinarritu gara: astean 28,5 ordu hezitzaile bakoitzeko; haietatik 18 ordu erabiltzaileekin zuzenean esku hartzeko, eta 10,5 ordu plangintza, kudeaketa, ebaluazioa eta abar egiteko.

Tauletan ageri den kostua da arduraldi hori (astean 28,5 ordu) duen langile bati dagokiona. Zerbitzu bateko langileen benetako kostua kalkulatzeko, emaitzak biderkatu behar ditugu, haurren eta gazteen sustapenerako balio anitzeko zerbitzuan parte hartzen duten profesionalen kopurua oinarri hartuta.

A) 1. AUKERA: Administrazio publikoak zuzenean kudeatzea. UDALHITZ 2008-2010

Taldea	Postua	Hileko oinarrizko soldata	Urteko oinarrizko soldata	Urteko orduak	€/ orduko	Urteko oinarrizko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
A2	Hezitzailea	2.648 €	37.076 €	1.174	23,3 €	27.345,8 €	1.367,3 €	9.024,1 €	37.737,20 €	2.695,51 €
N17										
A2	Dinamizatzailea	2.648 €	37.076 €	1.174	23,3 €	27.345,8 €	1.367,3 €	9.024,1 €	37.737,20 €	2.695,51 €
N17										
C1	Informatzailea	2.300 €	32.202 €	1.174	20,2 €	23.751,2 €	1.187,6 €	7.837,9 €	32.776,68 €	2.341,19 €
N14										
C1	Aisialdiko jardueretako zuzendari									
N14	edo koordinatzailea	2.300 €	32.202 €	1.174	20,2 €	23.751,2 €	1.187,6 €	7.837,9 €	32.776,68 €	2.341,19 €
C2	Aisialdiko jardueren zuzendari edo									
N13	koordinatzaile laguntzailea	2.141 €	29.980€	1.174	18,8 €	22.112,4 €	1.105,6 €	7.297,1 €	30.515,07 €	2.179,65 €
C2	Aisialdiko jardueren									
N11	begiralea	1.983 €	27.758 €	1.174	17,4 €	20.473,5 €	1.023,7 €	6.756,3 €	28.253,46 €	2.018,10 €

B) 2. AUKERA: Zeharkako kudeaketa, erakunde pribatuen bidez
B.1. Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa (2011-2014)

Taldea	Postua	Hileko oinarrizko soldata	Urteko oinarrizko soldata	Urteko ordua	€/orduko	Urteko oinarrizko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
2	Hezitzailea	1.642 €	22.985 €	1.288	13,9 €	17.955,8 €	897,8 €	5.925,4 €	24.779,1 €	1.769,9 €
2	Dinamizatzailea	1.642 €	22.985 €	1.288	13,9 €	17.955,8 €	897,8 €	5.925,4 €	24.779,1 €	1.769,9 €
3	Informatzailea	1.501 €	21.015 €	1.288	12,7 €	16.416,7 €	820,8 €	5.417,5 €	22.655,0 €	1.618,2 €
3	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	1.501 €	21.015 €	1.288	12,7 €	16.416,7 €	820,8 €	5.417,5 €	22.655,0 €	1.618,2 €
3	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	1.422 €	19.911 €	1.288	12,1 €	15.554,9 €	777,7 €	5.133,1 €	21.465,7 €	1.533,3 €
4	Aisialdiko jardueren begiralea	11.343 €	18.808 €	1.288	11,4 €	14.693,1 €	734,7 €	4.848,7 €	20.276,4 €	1.448,3 €

B.2. Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa

Taldea	Postua	Hileko oinarrizko soldata	Urteko oinarrizko soldata	Urteko ordua	€/orduko	Urteko oinarrizko soldata	Absentis. eta kitapena (%5)	Gizarte Seg. (%33)	Urteko kostua guztira	Hileko kostua guztira (14)
2	Hezitzailea	1.193 €	16.701 €	1.317	9,6 €	12.624 €	631 €	4.166 €	17.420 €	1.244 €
2	Dinamizatzailea	1.193 €	16.701 €	1.317	9,6 €	12.624 €	631 €	4.166 €	17.420 €	1.244 €
3	Informatzailea	1.060 €	14.845 €	1.317	8,5 €	11.221 €	561 €	3.703 €	15.485 €	1.106 €
3	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzailea	1.060 €	14.845 €	1.317	8,5 €	11.221 €	561 €	3.703 €	15.485 €	1.106 €
3	Aisialdiko jardueren zuzendari edo koordinatzaile laguntzailea	994 €	13.917 €	1.317	8,0 €	10.520 €	526 €	3.471 €	14.517 €	1.037 €
4	Aisialdiko jardueren begiralea	928 €	12.990 €	1.317	7,5 €	9.818 €	491 €	3.240 €	13.549 €	968 €

1. eranskina: Lanbide-kualifikazioa eta lanbide-kualifikazioaren mailak

Lanbide-kualifikazioa

Kualifikazioa da lan-merkatuan aintzat hartzen diren lanpostu eta zereginak betetzeko aukera ematen duten lanbide-gaitasunen multzoa, prestakuntzaren edo lan-esperientziaren bidez eskura daitekeena (5/2002 Legea, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa).

Lanbide-kualifikazioaren 5 mailak

a) 1. maila, «gaitasunen ziurtagiria»

Jatorrizko estatu kideko eskumeneko agintaritza batek emandako gaitasun-ziurtagiria da, prestakuntza labor-labor bat, **alde aurreko prestakuntzarik gabeko berariazko azterketa bat**, edo estatu kide batean lanbide jakin batean arduraldi osoan hiru urtez etengabe aritu izana edo denbora horren baliokidea azken hamar urteetan arduraldi partzialean bete izana oinarri hartuta; edota lehen eta bigarren hezkuntzari dagokion prestakuntza orokorra, titularrak ezaupide orokorrak dituela egiaztatzen duena.

b) 2. maila, «ziurtagiria»

Bigarren hezkuntzaren mailako prestakuntzari dagokio. Prestakuntza hori lanbide-heziketakoa izan daiteke, edota orokorra, lanbide-heziketako ziklo batekin osatua.

c) 3. maila, «prestakuntza labor bat egiaztatzen duen titulua»

Bigarren hezkuntzaren ondorengo mailako prestakuntzari dagokio. Prestakuntza horrek urtebetekoa izan behar du gutxienez, eta hiru urtekoa gehienez.

d) 4. maila, «erdi-mailako prestakuntza egiaztatzen duen titulua»

Goi-mailako edo unibertsitateko hezkuntzaren mailako prestakuntzari dagokio. Prestakuntza horrek **hiru urtekoa izan behar du gutxienez, eta lau urtekoa gehienez**. 4. mailako prestakuntzaren baliokidetzat hartuko dira lanbide jakin bat gauzatzea helburu duten prestakuntza arautuak: bigarren hezkuntzaren ondorengo hiru urteko ikasketak-zikloa edo arduraldi partzialean egindako iraupen baliokideko ikasketak-zikloa unibertsitate batean edo maila bereko prestakuntza-zentro batean, eta, hala badagokio, bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketek gain eskatutako lanbide-heziketa, lanbide-praktiken aldia edo lanbidean jardutea.

e) 5. maila, «goi-mailako prestakuntza egiaztatzen duen titulua»

Goi-mailako prestakuntzari dagokio, eta prestakuntza horrek **lau urtekoa izan behar du gutxienez**. 5. mailako prestakuntzaren baliokidetzat hartuko dira lanbide jakin bat gauzatzea helburu duten prestakuntza arautuak: bigarren hezkuntzaren ondorengo lau urteko edo gehiagoko ikasketak-zikloa edo arduraldi partzialean egindako iraupen baliokideko ikasketak-zikloa unibertsitate batean edo maila bereko prestakuntza-zentro batean, eta, hala badagokio, bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketek gain eskatutako lanbide-heziketa, lanbide-praktiken aldia edo lanbidean jardutea.

Proposamenen dokumentua:

Gaztematikako profil profesionalak finkatzeko lan ildoak

1. Gaztematikako zerbitzuetarako, programetarako eta jardueretarako profesionalen karakterizazioari buruzko elementu adostuak.

- «Gaztematika»⁷ zehazteko oinarritzko dokumentuak jasotzen zituen **Hezitzailearen eta Dinamizatzailearen** bi irudi profesionalak bakar batean bateratzea erabaki da. **Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuetako eta programetako Hezitzaile** deitzea ikusi da egokiena; gainera, Gizarte-hezitzailearen graduari dagokion tituluaren identifikazioa errazten du.
- Oinarritzko 5 profil profesionalen **karakterizazioan eragiten duten hainbat aldagai erabakigarri** identifikatzea lortu da.
 - Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen eta programen erabiltzaileekin (parte-hartzaileak) dagoen harreman/parte-hartze zuzenaren maila.
 - Lana non egiten den: haurren eta gazteen sustapeneko zerbitzua, programa edo jarduera.
 - Funtzio profesionala betetzeko behar den titulua/trebakuntza.
 - Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak aitortutako prestakuntza.
 - Bere kargura dituen lan taldeei buruzko erantzukizun maila.
 - Zenbat pertsona dituen bere kargura.
 - Bere laneko funtzioen konplexutasuna.
- Egun, **Gaztematikarako** ezar ditzakegun **oinarritzko 5 profilak** honako hauek dira:
 - **Haurren eta gazteen sustapen unitateko teknikaria.** Foru edo udal unitateetatik, haurren eta gazteen sustapen politika diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko gaitua.
 - **Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen eta programen hezitzailea.** Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuak, programak eta jarduerak diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko gaitua, foru edo udal esparruan. (Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua, Haurren eta Gazteen Ekimenei Laguntzeko Zerbitzua...)
 - **Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen eta programen informatzailea.** Haurrentzako eta Gazteentzako Informazio Zerbitzua diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko gaitua, foru edo udal esparruan.

⁷ Gaztematika. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Oinarritzko dokumentua [linean] Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2010. Hemen eskuragarri: <http://www.gipuzkoagazteria.net/orria.php?pg=103&hizkntz=2> [2012ko urtarrilak 30].

- **Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren Zuzendaria (Koordinatzailea).**

- **Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren Begiralea (Dinamizatzailea).**

- Haurren eta gazteen sustapen unitateko teknikariaren profila ez da aztertu laborategi honetan; izan ere, gaur egun, hori zehazteaz arduratzen den beste lan talde bat dago.
- Lehenetsuntzat jo da profil bakoitzaren lan zereginak modu zuzenean eta argian zerrendatzea, lanpostu bakoitzerako zer profil behar den zehazterakoan sor litezkeen nahasketak saihesteko.

2. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapen Sistemarako lau profil profesionalentzat adostutako taula

Haurren eta gazteen sustapeneko unitate teknikariaren profila ez da grafiko honetan sartu, aurreko atalean adierazitako arrazoia dela medio.

Profilaren deitura	Titulua/Trebakuntza	Lanbideko prestakuntza maila	Lanbidea
Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen eta programen Hezitzailea.	• Unibertsitateko trebakuntza: Gizarte Hezkuntzako gradua. • Unibertsitateko trebakuntza: Graduak: Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia...	4/5	• Tokiko balio anitzeko zerbitzuen hezitzailea. • Haurren eta gazteen sustapen programen eta jardueren hezitzailea.
Haurren eta gazteen sustapeneko zerbitzuen eta programen Informatzailea.	• Araututako Lanbide Heziketa: zehaztu gabe⁸. • Arautu gabeko trebakuntza: Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen eta programen informatzaile ziurtagiria.	3	• Haurrentzako eta gazteentzako balio anitzeko informazio zerbitzuen informatzailea. • Gazteentzako informazio bulegoak eta gunek.
Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren Zuzendaria (Koordinatzailea).	• Araututako Lanbide Heziketa: Animazio Soziokulturaleko goi teknikaria⁹. • Arautu gabeko trebakuntza: Haurrentzako eta Gazteentzako jardueren koordinatzaile ziurtagiria (haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaile eskolak).	3	• Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren koordinatzailea. • Kanpaleku, gazte-aterpetxe, udaleku-etxe, baserri-eskola, natura-ikasgela eta -eskoletako koordinatzailea.
Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren Begiralea (Dinamizatzailea).	• Arautu gabeko trebakuntza: Haurrentzako eta gazteentzako jardueren begiralea (haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaile eskolak). • Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaile jardueren dinamizazio prestakuntza	2	• Haurrentzako eta gazteentzako aisia hezitzaileko jardueren begiralea. • Kanpaleku, gazte-aterpetxe, udaleku-etxe, baserri-eskola, natura-ikasgela eta -eskoletako begiralea.

⁸ Informatzailearen prestakuntzari buruzko datuak zehatu gabe utziko dugu, horretarako sortutako lantaldeak aterako dituen ondorioak adostu arte.

⁹ Real Decreto 1684/2011, de 18 de Noviembre, Título de Técnico Superior de Animación Sociocultural y Turística (BOE 27/12/11)

3. Oinarrizko elementuen azterlan konparatiboa, Gaztematikarako erreferentziazkoak diren lan harreman esparruetan (Udalhitz eta sektore hitzarmen pribatuak)

3.1. Esparruak: Funtzio-, lurralde- eta pertsona-esparrua.

Haurren eta gazteen sustapeneko funtzio-esparrua bi hitzarmenetan aitortu da; ondorioz, ez da eztabaidatu beharreko elementutzat jo.

Lurralde-esparruan, *Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako I. Hitzarmen Kolektiboa* dago gure errealitatetik gertuen.

Udalhitz 2008-2010	Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko I. hitzarmen kolektiboa	Aisialdi hezigarriari eta animazio soziokulturalari buruzko estatuko I. hitzarmen kolektiboa
A taldea edo A1 azpitaldea (publikoa) - Doktorea, lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa edo baliokidea. 21-30 mailak.	1. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila handienak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo haiekin lotutako goi-mailako unibertsitate-prestakuntza (lizentziatura) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua dutenak. - Lanpostuak, orientazio gisa: psikologoa, pedagogoa, psikopedagogoa...	I. taldea: zuzendaritzako langileak. - Lanpostuak: zuzendari nagusia.
B taldea edo A2 azpitaldea (publikoa) - Ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoa, 3. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. 17-26 mailak.	2. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo haiekin lotutako erdi-mailako unibertsitate-prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua dutenak. - Lanpostuak, orientazio gisa: gizarte-hezitzailea...	II. taldea: kudeaketako langileak. - Lanpostuak: departamentu-burua; programen, proiektuen eta ekipamenduen zuzendaria; proiektu pedagogikoen eta aisialdi-proiektuen koordinatzailea; gizarte- eta kultura-kudeaketako teknikaria.
C taldea edo C1 azpitaldea (publikoa) - Batxilerra, 2. mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea. 14-22 mailak.	3. lanbide-taldea: konplexutasun- eta autonomia-maila ertainak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; normalean, goi-mailako prestakuntza dute, unibertsitatekoa izatea ezinbestekoa ez bada ere (Goi-mailako Heziketa Zikloak, Batxilergoa eta abar) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua. - Lanpostuak, orientazio gisa: gizarte- eta kultura-arloko zerbitzueta eta komunitaterako zerbitzueta goi-mailako teknikaria: animatzaile soziokulturala.	III. taldea: hezkuntza-arretako eta gizarte- eta kultura-alorreko langileak. - Lanpostuak: zentroko jarduera eta proiektuen koordinatzailea, aisialdi hezigarriko begiralea, animatzaile soziokulturala, tailerretan aditua, areto-kontrolatzailea, informazio-teknikaria eta gradu-tituluduna.
D taldea edo C2 azpitaldea (publikoa) - Eskola-graduata, 1. mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea. 11-19 mailak.	4. lanbide-taldea: konplexutasun-, erantzukizun- eta autonomia-maila arruntak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; erdi-mailako edo oinarriko prestakuntza izan ohi dute, unibertsitatekoa ez dena (Erdi-mailako Heziketa Zikloak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatua. - Lanpostuak, orientazio gisa: begiralea, gizarte- eta kultura-arloko zerbitzueta eta komunitaterako zerbitzueta teknikaria...	IV. taldea: administrazioako langileak. - Lanpostuak: administrazio-kudeaketako teknikaria, merkataritza-agentea, txartel-saltzailea, administrazioko laguntzailea, harreragile/telefonista.
E taldea - Eskola-ziurtagiria. 8-16 mailak.	5. lanbide-taldea: konplexutasun-, erantzukizun- eta autonomia-maila baxuak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak; oinarriko prestakuntza izan ohi dute, edota prestakuntzarik ez, edo bestela, eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatuak baino ez.	V. taldea: zerbitzu orokorretako langileak. - Lanpostuak: sukaldaria, sukaldeko laguntzailea, mantentze-lanetako teknikaria, gidaria, garbitzailea, atezain/jagilea...

3.3. Ordainsari egitura: oinarritzko soldata, sariak eta ordainketak aldi baterako ezintasun aldian

- Haurren eta gazteen sustapeneko zerbitzuen, programen eta jardueren zuzeneko kudeaketan, erreferentziazko zuzeneko hitzarmena *Udalhitz* izango da.
- Haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen, programen eta jardueren zeharkako kudeaketan, garrantzitsua iruditzen zaigu *Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako I. Hitzarmen Kolektiboa* erreferentziatzen hartzea.
- *Estatu Mailako Aisia Hezitzailearen eta Animazio Soziokulturalaren I. Hitzarmen Kolektiboko* eta *Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako I. Hitzarmen Kolektiboko* oinarritzko soldatak aldaratzen baditugu, ohartuko gara estatu mailako hitzarmena aplikatzen zaien pertsonen Gipuzkoako lurraldekoek baino % 40 gutxiago kobratuko dutela.
- Gipuzkoako hitzarmena aplikatzea zailtzen duen arrazoi nagusia, dirudienez, soldata-taula hori aplikatzeko enpresek egin beharko luketen ahalegin ekonomikoa da.
- Zenbait alderdi teknikotan, bai eta ordainsari-egiturei dagozkien zenbaitetan ere, garrantzitsutzat jotzen da Hezkuntza formalaren sektoreko hitzarmenak (sektore publikoa eta pribatua) erreferentetzat izatea.
- Hitzarmenak betearaztearen nahitaezotasun maila eta zerbitzuen zein programen kalitatea ziurtatzeko aukerarik egokiena aztertuko dituen aholkularitza teknikoa edukitzea proposatu da.

Zerbitzuko profesionalen kostu-taula, profil teknikoaren arabera:

- Oso positibotzat jo da zerbitzuen kostuaren inguruan egindako hurbilketa.
- Garrantzitsua da haurren eta gazteen sustapeneko zerbitzu, programa edo jardueraren baten kostua kalkulatzeko formularen zehaztapena lantzea.

Horretarako, aurrera egin behar dugu *laneguneko ordu kopurua kalkulatzeko tresnaren* sorkuntzan.

Formulak oinarritzko 2 aldagai jaso behar lituzke:

- **Zuzeneko esku-hartzearen** ordu kopurua;
- **Zeharkako lanaren** ordu kopurua (plangintza, kudeaketa, ebaluazioa...)
- **Laneguna = zuzeneko esku-hartze orduen kopurua + Zeharkako lanaren ordu kopurua.**

- Ratioaren eraikuntzan aurrera egiteko asmoarekin, «*Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua antolatze eta inplementatzeko lerro estrategikoak*» dokumentuan, EHUko Didaktika eta eskola-antolakuntza saileko irakasle taldeak (CUDEA) proposatutako irizpide teknikoa erabiltzea proposatu dugu.

Bertan, kontuan izan beharreko bi erreferentzia azaltzen dira:

- Eskola hezkuntza formala:

LH: 30 orduko astea = irakaskuntzako 23 ordu astean (% 75) + Zeharkako laneko 7 ordu (% 25).

DBH: 30 orduko astea = irakaskuntzako 18 ordu astean (% 60) + Zeharkako laneko 12 ordu (% 40).

- Gizarte hezkuntza (CUDEA taldearen proposamena):

Asteko lanaldia = asteko orduen % 50, esku-hartzeko + asteko orduen % 50, Zeharkako lanerako.

- Irizpide garrantzitsutzat jotzen da **zeharkako lanorduek hezitzaile-taldeko langile guztien artean partekatzea**; hartara, ordu horiek guztiak pertsona bakar baten eskuetan uztea saihesteko ahalegina egiten da.
- Zeharkako lanean emandako orduen ratioa desberdina da, profil profesionalaren arabera. Horrenbestez, profil bakoitzari dagokion berariazko kalkulua egitea erabaki genuen.
- Laborategian lehentasuna eman genion haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programetako **hezitzailearen** profilari dagokion zeharkako lanerako arduraldiaren portzentajea zehazteari. Laborategian parte hartu zuten 21 teknikariei egindako inkesta oinarri hartuta, funtzio-eremu horri emandako gehieneko eta gutxieneko arduraldiei dagokienez, honako ondorio hauek atera ditugu:
 - Zeharkako lanari emandako **gutxieneko** arduraldia: **lanaldiaren %29.**
 - Zeharkako lanari emandako **gehienezko** arduraldia: **lanaldiaren %42.**
 - Zeharkako lanari emandako **batez besteko** arduraldia: **lanaldiaren %35.**

Gaztematikako profesionalen etorkizuna finkatzeko lan ildoak

1. Lan ildoak: Kalitatearen adostasuna

- Gaztematikako eragileak kontzientziaztea, haurren eta gazteen sustapen zerbitzuen, programen eta jardueren kalitatearen aldeko apustua profesional aktiboen lan eta diru baldintzei oso lotuta dagoela ohar daitezen.

- Kudeaketa-sistema (zuzena edo zeharkakoa) zerbitzuen, programen eta jardueren kalitatearen murrizketan eragingo duen aldagaia ez dela izango bermatzea.
- Lehentasuntzat hartzen da, Gaztematikako eragileen artean, lanegunaren ordu kopurua kalkulatzeko formulari buruzko adostasuna eraikitzea, profesionalen aldetik kalitatea ziurtatzeko, zerbitzuak, programak eta jarduerak gauzatzerakoan.
- Gaztematikako profesionalen profila eta funtzio zein soldata egitura zehaztea.
- Egokitzapen egoeren aurrean, lehen aukera gisa, zerbitzuaren kalitateari lehentasuna ematearen eta, lan kontratazioetan, baldintza duinak bermatzearen aldeko apustua egin da.
- Gaztematikako gainontzeko eragileekin implementatu nahi den kalitate prozesua adosten saiatzea, existitzen diren kontrajarritako jarreretatik abiatuta.
- Haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programetako hezitzailearen profilaren definizioak lehentasun handiena duela jo da.
- Profilen proposamen hau Gaztematikako foro teknikora eta foro politikora helaraztea, eztabaida dadin.

2. Lan ildoak: kalitate prozesua implementatzea

- Kalitate neurri horien implementazio prozesua mailakatua izango da, bai eta sentibera ere, egun lurraldean existitzen diren errealitate anitzekin.
- Sistema gardena sortzea, haurren eta gazteen sustapen sistemaren zerbitzuetako, programetako eta jardueretako giza baliabideen kudeaketan. Agiri teknikoetan, aurrekontuak aurkezteko eta TC1, TC2, nominak eta abar entregatzeko obligazioak sartzeara.
- Enpresek haurren eta gazteen sustapeneko zerbitzuen, programen eta jardueren kudeaketan egindako ekarpenaren aitortzea (esperientzia, ezagutza, erantzukizuna, jarraipena...). Beharrezkoa litzateke erakundeek ekarpen horrek sortzen dituen gastuetan laguntzeko beharra euren gain hartzea. Horretarako, garrantzitsua da inplikaturako eragileekin (ordezkari politikoak, teknikariak eta enpresak) lan egitea enpresa-kostu horri eskaini behar litzaiokeen aurrekontuaren ehunekoari buruzko irizpide teknikoaren eraikuntzan.

3. Lan ildoak: Komunikazioa eragileekin

- Zinegotziekin lan egitea, kalitate neurri horiek ekartzen dituzten onurez kontzientziazteko.
- Harreman zuzena enpresekin, euren balorazioari eta jarrerari buruzko informazioa jasotzeko, kontratatutako pertsonen lan baldintzei dagokienez.

- Komunikazio zuzena sindikatuen ordezkaritzarekin, lan hitzarmenak aplikatzeko prozesuan lagunduko duten neurriak adosteko.
- Komunikazio zuzena Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoarekin, proposatutako neurrien definizioan eta inplementazioan laguntzeko.
- Komunikazioa Bizkaiko haurren eta gazteen sustapenaren eremuko eragileekin, aipatutako lurraldeko gizarte esku-hartzearen hitzarmen kolektiboaren ezarpenaren inguruan izan duten esperientziatik informazioa biltzeko eta ikasteko.

4. Lan ildoak: trebakuntza

- Oinarrizko trebakuntza irakaskuntzako sistema arautuaren kontura izango da. Bi eragile nagusi identifikatu ditugu: Unibertsitatea eta lanbide heziketako zentroak.
- Unibertsitatearekin, Gaztematikak haurren eta gazteen sustapenaren eremuko gizarte hezitzailearen profilaren oinarrizko curriculumaren diseinua zehazten lagundu dezake.
- Lanbide Heziketako zentroekin, Gaztematikak haurren eta gazteen sustapenerako informatzailearen, koordinatzailearen eta dinamizatzailearen profilaren oinarrizko curriculumaren diseinua zehazten lagundu dezake.
- Etengabeko trebakuntza Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren ardura litzateke.
- Lehentasuna litzateke profil bakoitzaren prestakuntza-ibilbidea eta eguneroko lanbide-jardueraren etengabeko trebakuntza-premiak zehaztea.
- Aholkularitza eta trebakuntza ematea, aurrekontuen, balantze ekonomikoen, kostuen kalkuluen eta bestelakoen prestakuntzan eskumen teknikoak eskuratzeko.
- Era berean, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema bezala, gure eremuko profesionalen trebakuntza-prozesuan inplikaturako eragileekin lan egiteko dugun borondatea erakutsi nahi dugu.
- Unibertsitateekin lankidetzan jarduteak lehentasuna duela irizten diogu. Halaber, lanbide-heziketako ikastetxeekin eta aisialdi hezigarriko eskolekin batera lan egiteko dinamika ezartzeari lehentasuna eman behar zaio.

mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.
- 06.** Gipuzkoako elkarteek Gaztematikari egindako ekarpena.
- 07.** Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko zerbitzuen ebaluaketa.
- 08.** Gipuzkoako gazteria arloko profesionalak.
- 09.** Herritartasun aktiboa eraikitzen!
- 10.** Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean.
- 11.** Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia
- 12.** Gaztematikako lan hitzarmen berriei eta profil profesionalei buruzko hausnarketak



Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Gazteria Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa